

## Adierazpena

### **Euskararen Nafar Kontseiluak 2017ko urtarrilaren 19an egindako saioan aho batez onartutakoa**

Behean sinatzen dugun Euskararen Nafar Kontseiluko kideek gure kezka adierazi nahi dugu azken garai hauetan zenbait alderdik eta bestelako eragile batzuek euskararen gaia hautatu dutelako gatazka soziala elikatzeko. Irudi luke euskararen inguruan berri oro gatazka iturria izatea bilatzen ari dela. Dena da arazoa: haur eskolak, D eredua, hizkuntza-murgilketa, LEPa... Ez dugu ulertzen, ez gatoz bat horrekin eta kezka handiz bizitzen ari gara egoera hori guztia.

Euskara, Nafarroako hizkuntza berekia da eta nafar guztien ondarea. Horregatik, euskara jakitea aberasgarria da pertsona ororentzako, balio erantsia da. Nafarroako gizartearentzat euskara osasuntsu eta bizirik egotea ondasun iturria baino ez da: linguistikoa, kulturala, soziala eta ekonomikoa. Hori ez ezik, aniztasunaren, errespetuaren, heldutasunaren eta askatasunaren erakuslea ere bada.

Hortaz, sinetsita euskarak ondasuna baino ez dakarkiola Nafarroako gizarteari, Euskararen garapenerako aholku emaile organoa den honek Nafarroan ardura politikoak, sozialak eta ekonomikoak dituzten pertsonen eta erakundeen ondoko proposamenak egin nahi dizkie:

- Elkarbizitzaren izenean, nafar guztien ardura da aberastasuna eta aniztasuna sustatzea.

## Declaración

### **del Consejo Navarro del Euskera aprobada por unanimidad en sesión de 19 de enero de 2017**

Los miembros del Consejo Navarro del Euskera abajo firmantes queremos expresar nuestra preocupación por el hecho de que, en estos últimos tiempos, determinados partidos y otros agentes se están valiendo del euskera para alimentar un conflicto social. Da la impresión de que buscan que cualquier noticia relacionada con el euskera sea fuente de conflicto. Todo es un problema: las escuelas infantiles, el modelo D, la inmersión lingüística, la OPE... No lo entendemos, no estamos de acuerdo con ello y estamos viviendo toda esa situación con gran preocupación.

El euskera es lengua propia de Navarra y patrimonio de todos los navarros y navarras. Por ello, el conocimiento del euskera es enriquecedor para cualquier persona; es un valor añadido. Que el euskera esté vivo y tenga vigor no es para Navarra más que fuente de riqueza: lingüística, cultural, social y económica. Además de ello, es también muestra de pluralidad, respeto, madurez y libertad.

Por ello, convencidos de que el euskera no supone más que riqueza para la sociedad navarra, este órgano asesor para el desarrollo del euskera quiere realizar las siguientes propuestas a las personas e instituciones con responsabilidades políticas, sociales y económicas:

- En nombre de la convivencia, es responsabilidad de toda la ciudadanía navarra promover la riqueza y la pluralidad.

- Euskara, Nafarroako hizkuntza berekia, ez erabiltzea gatazka politiko-soziala elikatzeko.
- Eztabaida politiko-sozialean erabiltzen diren adjektiboak neurtzea.

Euskararen gainean erakundeek hartzen dituzten neurri zehatzen alde edo aurka egon daiteke edonor, baina hortik abiatuta euskara darabilen komunitate linguistikoa eta euskara bera gutxiestea, iraintzea eta arrotzea arbuia behar da. Kritikak eta iritzia beti dira beharrezkoak, baina garapenerako eta komunitate linguistikoen elkarbizitzarako urratsak bilaka daitezten, oinarri zientifikoan (soziolinguistikan) oinarritu behar dira eta ez bakoitzaren interes alderdikoi edota pertsonalen baitan.

Etorkizuna dugu jokoan, elkarrekiko errespetuan oinarrituta.

- Que no se utilice el euskera, lengua propia de Navarra, para alimentar un conflicto político-social.
- Que se cuiden los adjetivos utilizados en el debate político-social.

Toda persona tiene derecho a estar a favor o en contra de las medidas concretas que adopten las instituciones en relación con el euskera, pero, siendo eso así, hay que rechazar que la comunidad que hace uso del euskera y el euskera mismo sean infravalorados, vilipendiados y tratados como algo extraño. Las críticas y las opiniones siempre son necesarias, pero para que sirvan para el desarrollo y la convivencia de las comunidades lingüísticas, han de tener base científica (sociolingüística), y no responder a los intereses partidistas o personales de cada cual.

Es el futuro, basado en el respeto mutuo, lo que está en juego.